



Jon Mikel Galparsoro | San Benito Ikastola (Lazkao) | 3. Saria Lehen Hezkuntza Fisio (Ih6a)

Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodisea oso ekimen egokia da ikasleek beren iritzia eman eta besteena errespetatzen ikas dezaten”

Jon Mikel Galparsoro, Lazkaoko San Benito Ikastolakoa, Lehen Hezkuntzan –Fisiohirugarren saria lortu duen 20 ikasleko taldearen arduraduna da. Hezitzailea oso pozik dago Kosmodisean parte hartuta izan duen esperientziarekin eta bere hitzetan, ekimen hau *“Ikasleak motibatzeke oso baliagarria da. Horretaz gain irakasleontzat ere tresna egokia da, ikasgelan lantzen diren gai batzuk uztartzeko aukera eskaintzen duelako, hala nola, IKTak, ingurugiroaren aldeko mezuak eta kontzientzia, eta baita taldean lan egitea eta giza balioak ere.”*

- Zure iritziz, zer interesatu zaie gehien ekimen horretako ikasleei?
- *Ikasleei euren lanak Interneten zintzilikatuak agertzeak ilusio handia egiten die, eta horrek lanean murgiltzera eramaten ditu. Saria jaso eta irabazteak ere asko motibatzen ditu, baina hori kontraproduzentea ere izan daiteke, ezer irabazteko aukerarik ez dutela sumatzen badute desanimatzera jotzen baitute. Sailkapena, puntuazioak... aztertu egin beharko lirateke.*

Jon Mikel Galparsorok adierazi du bere ikasleek ez dutela protestarik egin, egindako lanekin gustura geratu baitira, eta horrekin nahikoa izan dute. *“Halere azken unean guk bi talderekin parte hartu genuen eta batek saria atera izana eta besteak ez, oso mingarria egin zaie.”*

San Benito Ikaslearen ordezkariaren ustez, Kosmodisean parte hartzea egokia da taldean lan egiten, bakoitzaren iritzia ematen eta besteena errespetatzen ikasteko. *“Horretaz gain, lan bat planifikatu, elaboratu eta argitaratzeak ematen dituen buruhauste eta zailtasunez jabetzeko aukera dute ikasleek. Teknologia berriak eta Internet egoki erabiltzen ikasteko ere balio izan die, Internet ez dela argazkiak ikusteko leku bat edo jolasak dauden leku bat soilik.”*



“TORRE DE CONTROL”-AREN LAN ONA

- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
- *Jaso ditugun erraztasunak eta “Torre de Controletik” jasotzen dugun laguntza. Horretaz gain, LH II-ko gaia ere egokia iruditu zait, ikastola eta ikastetxe gehienak baikaude Agenda 21 ekimenean sartuta eta hor tratatzen ditugun gaietako bat (energiaren gehiegizko erabilera) lantzeko aukera eskaini baitigu. Hobekuntzen inguruan, batik bat, simulatzailea hobetuko nuke, hartzen diren erabakiak zergatik hartzen diren zehazteko gune bat jarritz edo (badakit zailagoa dela).*

- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- *Printzipioz bai. Gure ikastolan LH-ri dagokionez, gure hezkuntza proiektuan LH6 mailan egoki txertatzen dela ikusi dugu eta horiekin parte hartzeko asmoa dugu.*

Jon Mikelek adierazi du, bere ustetan, Kurasaaleko ekitaldian hizkuntzari eman zitzaion tratamendua ez zela egokia izan. *“Oharkabean izango zela pentsatzen badut ere, ekitaldian zehar ingurumenaren eta ekosistemen gaia landu zen eta baserri giroa eta hiritarra. Baserri giroa euskararekin lotu zen, baratza, baserritarra, txalaparta... eta hiriko giroa, raperoa, modernitatea, aurrerapena gaztelaniarekin. Gure ikastetxeetan “klitxe” hori da behin eta berriz apurtu nahian ibiltzen garena, euskara herri moderno bateko hizkuntza gisa aurkeztuz, eta zaharkitua eta “modaz pasatakoa” ez denaren ideia ikasleengan txertatuz. Beraz, joera modernoak gaztelaniarekin lotzea eta garai bateko bizimodua soilik euskararekin desegokia iruditu zitzaidan.”*

Hala ere, Galparsorok Kosmodisea moduko jarduerak prestatzen jarraitzea animatzen du eta *“ekitaldia bera oso polita”* izan zela adierazi du, eta ikasleek gustura sentitzeko aukera izan zutela.